



[Hasiera](#) | [Etorri](#) | [Ezagutu](#) | [Bizi](#) | [Gida praktikoa](#)

[HOME](#) > [Ezagutu](#) > [Ezagutu natura](#) > [Santa Barbara mendia](#)

SANTA BARBARA MENDIA

Hirigunetik gertu, mendi txango txiki bat egiteko gune aproposa da Santa Barbara mendia. [Ibilbide sarea](#) : [Santabarbara](#) hemendik egiten da.



Panoramika Santa Barbara menditik | Iñaki Sanz Azkue

Garai batean Santa Barbara mendia koral arrezifea zen. Duela 120 milioi urte, Kretazeo garaian, Euskal Herrian klima tropikala zen nagusi. Itsas hondoa nahiko azalekoa izateak zenbait organismo eraikitzaileen sorrera ekarri zuen. Uharri-eraikitzaile (koral) horiek langa luzeak eratuz lerrotu ziren, ekialde-mendebalde norabidean. Koral arrezife ziren horiek egun Euskal Herriko kareharritzko mendiguneak direnak sortu zituzten. Horietako bat Santa Barbara mendia da.

Herri-gunetik gertu, Santa Barbara mendiak mendi-bira txiki bat egiteko ingurune bikaina eskaintzen du. Mendi honetan Urumea ibarraren bista zoragarriez gain, Hernaniko historian izan duen garrantzia gogora ekartzen duen ermita eta gotorlekuaren arrastoak aurki daitezke. Baita eskalatzeko toki aproposa ere.

Urtero, uztailaren 31ean, erromeria antolatzen da Santa Barbara mendian: meza, herri kirolak, bertsolariak, bazkari herrikoia...

GOTORLEKUA

Santa Barbarako gotorlekuari buruzko lehen berriak 1793ko azaroaren 20koak dira. Egun horretako Udal aktan Probintziako Foru Aldundiak Hernaniko Udalarik Santa Barbara ermita ingurua gotorleku bihurtzeko egin zion eskaera azaltzen da.

Ordutik, I. Guda Karlistan (1833-1839), II. Guda Karlistan (1872-1876) eta Guda Zibilean (1936) egon da okupaturik.



Lehenengo Guda Karlista amaitu zenean, Vergarako Hitzarmenaren ondoren (1839), gotorlekua bota egin zuten.

Bigarren Guda Karlistan berriro eraiki zuten, aurrekoaren forma eta zimenduen gainean. Hala ere, hainbat aldaketa jasan zituzten: kuartelen distribuzioa, gunekarratu batzuk borobil antzera eraikitzea... Gainera, garai zailak zirenez, harri-horma arina eta mortero txarrekin eraiki zuten. Guda bukatu zenean soldatu gutxi batzuk mantendu zituzten bertan, baina ezinbestekoa ez zenez eta egoera txarrean zegoenez, 1891ko abuztuaren 25eko Errege Aginduari kasu eginaz gotorlekua hutsik geratu zen berriro ere. Oraingoan, ordea, ez zuten bota eta horri esker iritsi dira arrasto batzuk gaur eguneraino.

ERMITA

Santa Barbarako ermita gotorlekua baino zaharragoa da. 1625ean jada hari buruzko lehen berriak azaltzen dira. Meza emateko ez ezik, herritarrei ekaitza edo trumoa zetorrela jakinarazteko ere erabili izan zen. 1769ko dokumentu batek dioenaren arabera, Santa Barbarako ermitako kanpai hotsak Hernaniko parrokiako kanpaiak jotzen hasteko seinale bat ziren, herritarrek ekaitzaren aurrean prest egon zitezela ohartarazteko.



1955ean gaur egun ezagutzen dugun ermita eraiki zen, eta Tradizioak Santa Barbarako tontorra ermitaren irudiarekin lotu du. Ordura arte, egun jabetzea dagoen lekuan kokaturik zegoen. Jabetxeo sarrerako arkua dugu garai bateko ermitatik geratzen den gauza bakarretarikoa.

Nahi izanez gero, hau dena gida batekin egitea dago: [Mendi irteera gidatua](#) | [Santa Barbara](#)

PROPOSAMENAK



Pakete turistikoa: Hernani, erdi aroa, sagardoa

Erdi Aroko Hernani ezagutzeko aukera paregabea, baita sagardoaren kulturen murgiltzeko ere.

[Gehiago irakurri +](#)



Ibilbidea tren berdean

Tren berdea hartu eta herrian zehar paseo polit bat emateko aukera Hernaniko hainbat pasartetan oinarritutako grabazio bat entzunaz.

[Gehiago irakurri +](#)



Bisita gidatua hirigunean

Erdi Aroko Hernani ezagutu nahi? Gidaren azalpenak garai hartara eramango zaituzte: armariak, dorretxeak, garaiko gizartearen bitxikeriak...

[Gehiago irakurri +](#)

EZAGUTU HISTORIA

- HIRIGUNE HISTORIKOA

EZAGUTU NATURA

- HERNANIKO IBILBIDE SAREA

EZAGUTU KULTURA

- SAGARDOA

BIZI EZAZU HERNANI

- PROPOSAMENAK

- SANTA BARBARA GOTORLEKUA
- COMÈTE SAREA | 1941-1944
- GERRA ZIBILA: FUSILATZEAK HERNANIN
- SANTA BARBARA MENDIA
- NERE BORDA PARKE BOTANIKOA
- SANTA BARBARA ESKALADA ESKOLA
- URUMEA IBAIA
- DONE JAKUE BIDEA
- AZERI DANTZA
- URTEKO AGENDA

Turismo informazioa. Nafar kalea, 18 (Biteri). 20120 Hernani | Telefonoa: 943 33 70 28 | e-posta: [gurutze-a\[abildua\]hernani.net](mailto:gurutze-a[abildua]hernani.net)